# Agintariak eta Langileria

## Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

**OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

**6497**

5328/2009 EBAZPENA, azaroaren 12koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako 2010eko deialdia egiten duena.

Martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko prozesua arautzen du. Dekretu horrek zehazten du Osakidetzan aplikatu beharreko hizkuntza-eskakizunak apirilaren 15eko 13. artikuluan ezarritakoak direla (86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena). Orobat ezartzen du Osakidetzak eskumena duela hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko, bai ohiko deialdi bai ohiz kanpoko deialdien bidez.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben 2010eko ohiko deialdia onartzea, I. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

***Bigarren artikulua***.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duen Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluaren eta hurrengo artikuluen arabera.

# Autoridades y Personal

## Cursos de Formación y Perfeccionamiento

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO**

**6497**

RESOLUCIÓN 5328/2009, de 12 de noviembre, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se aprueba la convocatoria ordinaria de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos del 2010.

Mediante el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, se regula el proceso de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio Vasco de Salud. Este Decreto establece que los perfiles lingüísticos de aplicación en Osakidetza-Servicio Vasco de Salud son los determinados en el artículo 13 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, determina la competencia que le asiste a Osakidetza-Servicio Vasco de Salud para la realización de pruebas de acreditación de esos perfiles lingüísticos a través de convocatorias ordinarias y/o extraordinarias que, con esa específica finalidad, realice dicho Ente.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo primero.***– Aprobar la convocatoria ordinaria de pruebas para la acreditación de perfiles lingüísticos del año 2010, de acuerdo con las bases que figuran en el anexo I.

***Artículo segundo.***– Contra la presente resolución del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se convocan pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 12a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIA.

OINARRIAK

***1. oinarria.***– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2010eko deialdiak egiaztatze-prozesu independente biz egongo da osatuta; prozesuok elkarren segidakoak izango dira, baina oinarri orokor berek arautuak. Prozesu bakoitzak bere atalak izango ditu: izena emateko aldia, onartuen eta baztertuen zerrenda, atariko proben eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proba idatzien deialdia, ahozko probetara deitutakoen jende aurreko zerrenda, ahozko probak, probei dagokien behin-behineko kalifikazioen zerrenda, zerrenda hori dela kausa erreklamatzeko aldia eta, prozesuari amaiera emateko, behin-betiko kalifikazioen argitaratzea.

***2. oinarria***.– Deialdian hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ardura duen epaimahaia 2010eko deialdi osorako izendatuko da, alegia, egiaztatze-prozesu bietarako. Kideak 24. oinarrian xedatutakoaren arabera izendatuko dira.

***3. oinarria.***– Lehenengo egiaztatze-prozesua ebazpen hau argitaratzen den egunean hasten da. Bigarren egiaztatze-prozesua barne-jarraibide batzuen bidez hasiko da, Giza Baliabideetako Zuzendariak emanda hain zuzen. Jarraibideok zehaztuko dituzte prozesua osatuko duten urratsen erak eta epeak.

***4. oinarria.***– Deialdi honetan parte har dezakete prozesurako izena emateko epean zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan dauden Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere.

***5. oinarria.***– Deialdiak aukera ematen du lehenengo, bigarren eta hirugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko. Edozein modutara, eskatzaileek hizkuntza-eskakizun bakar baten azterketa egin ahalko dute.

***6. oinarria.***– Hirugarren hizkuntza-eskakizunaren probak egiteko bigarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta eduki behar da deialdian izena emateko epearen azken egunerako.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2009.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.

ANEXO I

CONVOCATORIA PARA LA ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS.

BASES

***Base 1.***– La convocatoria de acreditación de perfiles del 2010 constará de dos procesos de acreditación consecutivos, pero regidos por las mismas bases generales. Cada uno de los procesos tendrá su correspondiente período de inscripción, una relación de admitidos y excluidos, una convocatoria de pruebas preliminares de nivel y de pruebas escritas para la acreditación de perfiles, una relación pública de convocados a las pruebas orales, pruebas orales, su correspondiente relación de calificaciones provisionales y período de reclamación, y concluirá con la publicación de las calificaciones definitivas.

***Base 2.***– El tribunal responsable de la acreditación de perfiles será nombrado para el conjunto de la convocatoria del 2010, con sus dos procesos de acreditación, y será designado conforme a lo dispuesto en la base 24.

***Base 3***.– El primer proceso de acreditación se inicia con la publicación de la presente resolución. Respecto al segundo proceso de acreditación este se iniciará mediante Instrucción interna del Director de Recursos Humanos, que regulará cada una de las fases de que consta el proceso.

***Base 4.***– Podrá participar en la convocatoria, el personal de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, cualquiera que sea su relación de empleo, que en el plazo de inscripción del respectivo proceso, se encuentre en situación de servicio activo, excedencia para el cuidado de familiares o servicios especiales.

***Base 5.***– La convocatoria posibilita la acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos y tres. Quienes participen en ella sólo podrán realizar el examen de un único perfil.

***Base 6.***– Para poder tomar parte en los exámenes del perfil lingüístico tres resulta necesario tener acreditado el perfil dos al último día del plazo de inscripción.

***7. oinarria.***– Minusbaliotasunen bat onartuta duten izangaiek eskabide-orrian adierazi behar dute zein egokitzapen tekniko behar duten azterketa egin ahal izateko; nolanahi ere den, azterketak gainditzeko eskatuko den gaitasun maila berdina izango da.

***8. oinarria.***– Izangaiak hizkuntza-eskakizun batean baino gehiagotan parte hartzeko eskabidea egiten badu, Osakidetzak, bere kabuz, izangaiak probak egiteko eskatu duen hizkuntza-eskakizun altueneko zerrendan sartuko du.

Egiaztatze-prozesurako izena eman behar den momentuan aurreko prozesuaren behin betiko kalifikazioak oraindik argitaratu ez badira, aurreko deialdi horretan parte hartu duten izangaiek behin-behineko kalifikazioen arabera eskatu beharko dute hizkuntza-eskakizun jakin baten probetan parte hartzeko. Hala ere, prozesuan zehar behin betiko kalifikazioak argitaratzen badira eta, horren ondorioz, izangairen baten egoera aldatzen bada, Osakidetzak, bere kabuz, horrelako izangaien inskripzioa aldatuko du, egiaztatu duten hizkuntza-eskakizuna aintzat hartuta.

***9. oinarria.***– Egiaztatze-prozesu bakoitzaren izena emateko epea igaro ondoren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak, ebazpen baten bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du. Baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoia adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren web orrian eta zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan jarriko da jende aurrean.

***10. oinarria.***– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda jende aurrean jarri eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek hilabeteko epea izango dute gora jotzeko errekurtsoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari aurkezteko.

***11. oinarria.***– Azterketan parte har dezakete onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen ebazpenean onartuta agertzen diren izangaiek.

Era berean, azterketan parte har dezakete, baztertuta egon arren, gora jotzeko errekurtsoa jarri eta beraren kopia azterketaren egunean aurkezten dutenek. Gora jotzeko errekurtsoaren kopiarekin batera eskabidearen kopia ere aurkeztu beharko dute. Azterketaren emaitzak bakarrik balio izango du, baldin eta errekurtsoa ebatzi ondoren izangaia onartuta geratzen bada.

***12. oinarria.***– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak egiaztatze-prozesu bakoitzaren azterketen egutegia egokituko du onartutako eskaerak eta azterketak egiteko behar diren baliabideak kontuan hartuta. Azterketen egunak, lekuak eta orduak Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan, Osakide-

***Base 7.***– Los/las aspirantes que tengan reconocida alguna minusvalía deberán hacer constar en su solicitud las adaptaciones técnicas que consideren necesarias para la realización de las pruebas, sin que por ello se reduzca el grado de aptitud exigible para la superación de las mismas.

***Base 8.***– Cuando el/la aspirante solicite la participación en pruebas de varios perfiles lingüísticos, Osakidetza le integrará de oficio en la lista para la realización de las pruebas del perfil más alto de los solicitados.

En el supuesto de que en el momento de la inscripción en el respectivo proceso de acreditación aún no se hayan publicado las calificaciones definitivas del anterior, los aspirantes que hayan participado en ésta deberán solicitar la realización de las pruebas del perfil que corresponda en función de los resultados obtenidos en las calificaciones provisionales. Si como consecuencia de la publicación durante el proceso de las calificaciones definitivas algún aspirante viera modificada su situación, Osakidetza-Servicio Vasco de Salud procederá de oficio a adecuar su inscripción al perfil definitivamente acreditado.

***Base 9.***– Finalizado el plazo de inscripción en cada proceso de acreditación, el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud aprobará mediante resolución la relación definitiva de admitidos y excluidos, con expresión, en este último supuesto, del motivo de exclusión. Esta resolución se hará pública en la página web de Osakidetza y en los tablones de anuncios de las organizaciones de servicios.

***Base 10.***– A partir del día siguiente al de la pública exposición de la lista definitiva de admitidos y excluidos, los interesados dispondrán del plazo de un mes para presentar recurso de alzada, que deberá dirigirse al Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

***Base 11.***– Podrán participar en las pruebas los aspirantes que figuren como admitidos en virtud de la resolución definitiva de admitidos y excluidos de la convocatoria.

Así mismo, podrán participar aquéllos aspirantes que, aun no habiendo sido admitidos, acrediten en el día del examen la interposición del correspondiente recurso de alzada. La copia del recurso de alzada deberá ir acompañada de una copia de la solicitud. En este supuesto, la calificación del examen sólo tendrá validez en el caso de que, tras la resolución del recurso, el aspirante fuera finalmente admitido.

***Base 12.***– Osakidetza-Servicio Vasco de Salud elaborará el calendario de los exámenes de cada proceso de acreditación en función del número de solicitantes admitidos y de los recursos necesarios para su realización. Las fechas, lugares y horas de realización de los exámenes se darán a conocer a través de los tablones

tzaren web orrian eta komunikabideetan argitaratuko dira.

***13. oinarria.***– Lehenengo eta bigarren hizkuntza-eskakizunen atariko probak eta idatzizko probak bizkaieraz egin daitezke. Aukera hori eskabidean bertan espresuki adierazi behar da.

***14. oinarria.***– Proba guztiak baztertzaileak direnez, proba bat ez gainditzea nahikoa izango da hurrengo probak ez ebaluatzeko.

***15. oinarria.***– Atariko proben behin-behineko kalifikazioak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen baten bidez argitaratuko dira, eta Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta web orrian jende aurrean jarriko.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 10 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari aurkezteko. Erreklamazio horiek onartuak edo ezetsiak izango dira atariko probaren behin betiko kalifikazioak ezagutzera emango dituen ebazpenaren bidez.

***16. oinarria.***– Idatzizko probak gainditzen dituzten izangaiak ahozko probetara deituak izango dira. Ahozko probetara deitutakoen zerrenda zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta Osakidetzaren web orrian jarriko da.

Ahozko probara deituak izan ez direnek idatzizko proben emaitzen aurka erreklamazioren bat aurkeztu nahi badute, egiaztatze-proben behin-behineko kalifikazioak argitaratu ondoren egin beharko dute, 18. oinarrian araututakoaren arabera.

***17. oinarria.***– Aztertzaileek izangaien ahozko proba grabatu ahalko dute, premia ikusten badute, bakar-bakarrik, kalifikazioaren alderdiren bat berrikusteko, lagungarri bat eskueran edukitzearren.

***18. oinarria.***– Azterketen behin-behineko kalifikazioak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen baten bidez argitaratuko dira, eta Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan eta web orrian jende aurrean jarriko. Kalifikazio horietan, ebaluatutako proba bakoitzaren arabera (irakurmena, idazmena, ahozko ulermena, mintzamena) zehaztuko da izangaia «gai» edo «ez gai» den.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 10 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak Osakidetza-Euskal

de anuncios de las organizaciones de servicios y de la página web de Osakidetza, así como a través de los medios de comunicación.

***Base 13.***– Las pruebas preliminares de nivel y las pruebas escritas de los perfiles uno y dos podrán hacerse en euskera vizcaíno, opción que deberá señalarse expresamente en la solicitud.

***Base 14.***– Todas las pruebas son eliminatorias, de modo que el hecho de no haber superado una de ellas será motivo suficiente para la no evaluación de las siguientes.

***Base 15.***– Las calificaciones provisionales de las pruebas preliminares de nivel se darán a conocer mediante resolución del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, y serán publicadas en los tablones de anuncios de las organizaciones de servicios y en la página web de Osakidetza.

A partir del día siguiente al de la fecha en la que se hagan públicas dichas calificaciones provisionales, los interesados dispondrán de un plazo de 10 días naturales para formular reclamaciones ante el Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, que serán rechazas o estimadas por medio de la resolución que dé a conocer las calificaciones definitivas de la prueba preliminar de nivel.

***Base 16.***– Los/las aspirantes que superen las pruebas escritas de acreditación de perfiles lingüísticos serán convocados a la realización de la prueba oral. La relación de los aspirantes convocados a la prueba oral se dará a conocer, a través de los tablones de anuncios de las organizaciones de servicios y en la página web de Osakidetza.

Quienes no habiendo sido convocados a la prueba oral deseen presentar una reclamación sobre los resultados de las pruebas escritas podrán hacerlo una vez hechas públicas las calificaciones provisionales de las pruebas de acreditación, conforme a lo señalado en la base 18.

***Base 17.***– Los examinadores podrán grabar la prueba oral de los aspirantes, a los solos efectos de disponer de un material auxiliar que les permita, si lo consideran necesario, revisar algún aspecto de la calificación.

***Base 18.***– Las calificaciones provisionales de las pruebas de acreditación de cada convocatoria se darán a conocer mediante resolución del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, especificándose en la forma de «gai» o «ez gai» la calificación concreta de cada una de las pruebas evaluadas (lectura, redacción, comprensión oral, expresión oral), y serán publicadas en los tablones de anuncios de las organizaciones de servicios y en la página web de Osakidetza.

A partir del día siguiente al de la fecha en la que se hagan públicas dichas calificaciones provisionales, los interesados dispondrán de un plazo de 10 días

Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari aurkezteko. Erreklamazio horiek onartuak edo ezetsiak izango dira behin betiko kalifikazioak ezagutzera emango dituen ebazpenaren bidez.

***19. oinarria.***– Behin-behineko kalifikazioen aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, Osaki-detza-Euskal Osasun Zerbitzuko Euskara Zerbitzuak aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta erabakiko ditu. Ahozko probetara deituak izango dira, aurreko ahozko probara deituak ez izan arren, idatzizko proben aurka ezarritako erreklamazioa onetsi zaien izangaiak.

***20. oinarria.***– Ontzat emandako erreklamazioen ondorioz deitutako ahozko probak amaitutakoan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak izangaien behin betiko kalifikazioak argitaratuko ditu zuzendari Nagusiaren ebazpen baten bidez. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako da.

Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

***21. oinarria.***– Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenek behin betiko kalifikazioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunetik izango dituzte ondorioak.

***22. oinarria.***– Izangai bakoitzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetan lortzen duen behin betiko kalifikazioa bakarra izango da, hau da, «gai» edo «ez gai». Behin betiko emaitza «ez gai» denean, atariko proba edo hizkuntza trebetasunen bat gaindituta edukitzeak ez du baliorik izango beste egiaztatze-prozesu baterako.

Behin betiko emaitza «gai» izateko, behar-beharrezkoa da prozesuko proba guztiak gaindituak izatea.

***23. oinarria.***– Proba hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ziurtagiria jasoko dute.

***24. oinarria.***– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari Nagusiaren ebazpen bidez, deialdiaren ardura izango duen epaimahaia izendatuko da. Epaimahaikide izango dira epaimahaiburua, hiru mahaikide eta idazkaria. IVAPek epaimahaikideetatik bat izendatuko du. Epaimahaikide gehienak Euskal Herri Administrazioen zerbitzuan dauden langile finkoak izango dira, eta 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute. Epaimahaiburuak bere botoaz erabakiko ditu berdinketak, erabakiak hartzerakoan horrelakorik gertatzen bada.

naturales para formular reclamaciones ante el Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, que serán rechazas o estimadas por medio de la resolución que dé a conocer las calificaciones definitivas.

***Base 19.***– Una vez finalizado el período de reclamación contra las calificaciones provisionales, el Servicio de Euskera de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud examinará y resolverá las reclamaciones presentadas. Aquellos aspirantes que, no habiendo sido convocados al examen oral, vean estimada su reclamación sobre las pruebas escritas, serán convocados a la realización de la prueba oral.

***Base 20.***– Finalizadas las pruebas orales convocadas como consecuencia de las reclamaciones estimadas que hubiera habido, Osakidetza-Servicio Vasco de Salud hará pública las calificaciones definitivas de los aspirantes, mediante resolución del Director General, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta resolución se podrá interponer recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Base 21.***– Los efectos de la acreditación de los perfiles lingüísticos se producirán desde el día de la publicación de las calificaciones definitivas del proceso de acreditación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Base 22.***– La calificación definitiva obtenida por cada aspirante en los exámenes de acreditación de perfiles lingüísticos será única y se dará en la forma de «gai» o «ez gai». Cuando la calificación definitiva fuera de «ez gai», el haber superado la prueba preliminar de nivel o la correspondiente a alguna de las destrezas lingüísticas no se tendrá en cuenta para otros procesos de acreditación.

Para la obtención de la calificación definitiva de «apto» será necesario haber superado todas las pruebas del proceso.

***Base 23.***– Quienes superen las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos recibirán el certificado correspondiente de la Dirección General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

***Base 24.***– Mediante resolución del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud se designará el Tribunal responsable de la convocatoria, el cual estará integrado por el presidente, tres vocales y secretario. Uno de los vocales será designado por el IVAP. Los miembros que lo integren mayoritariamente serán trabajadores fijos al servicio de las Administraciones Públicas Vascas con el perfil lingüístico 4 acreditado. El presidente dirimirá con su voto los empates, a efectos de adoptar los acuerdos que procedan.

***25. oinarria.***– Epaimahaiak probetarako azterketa-ereduak ikus-onetsiko ditu. Proben behin-behineko emaitzen kontra jarritako erreklamazioez arduratuko da, eta Osakidetzako Euskara Zerbitzura deribatuko ditu. Era berean, prozesua modu egokian bideratzen dela zainduko du, horrela, izangaien aukera berdinak izateko printzipioa berma dadin.

Epaimahaikideek kalte-ordainak jasoko dituzte egindako zerbitzuengatik, baita bertaratzeagatik dagokienak ere, ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz. Halaber, aipatu kalte-ordainak jasoko dituzte zaintza lanetan edo laguntza materialari dagokionez Epaimahaiari aholkularitza edo laguntza eskaintzen diotenek.

***26. oinarria.***– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzak izango du probak antolatzeko ardura. Hizkuntza-eskakizunen probak sortzeko eta kalifikatzeko ardura Osakidetzako Euskara Zerbitzuak izango du, eta horretarako behar dituen baliabide materialez eta giza baliabideez hornituko zaio.

***27. oinarria.***– Hizkuntza-eskakizun bakoitzean eskatuko den euskara ezagutza-maila neurtzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: batetik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 13. artikuluan hizkuntza-eskakizun bakoitzerako zehaztutako hizkuntza-gaitasuna, eta bestetik, apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoak, eranskinean ezarritakoa.

***28. oinarria.***– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako eskabideak kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da eskatzaileei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta Osakidetzari eta erakunde eskudunei lagatzea. Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Deialdi honetan parte hartzen duten langileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.

Era berean, onartu egiten dute kalifikazioak erregistratzea, tratatzea, eta erakunde eskudunei lagatzea, Euskera Planak aurreikusitako gutxieneko helburuen eta lehentasunen betetze maila, bai eta hizkuntzaren

***Base 25.***– El Tribunal visará los modelos de examen de las pruebas y conocerá y derivará al Servicio de Euskera las reclamaciones presentadas contra las calificaciones provisionales de las pruebas. Asimismo, velará por el correcto desarrollo del proceso, de modo que en todo momento quede garantizado el respeto al principio de igualdad de oportunidades de los aspirantes.

Los miembros del Tribunal percibirán las indemnizaciones por razón de servicio que correspondan, incluidas las de asistencias, de acuerdo con lo regulado en el Decreto 121/2006, de 13 de junio. Igualmente percibirán dichas indemnizaciones quienes presten su asesoramiento o colaboren con el Tribunal en tareas de vigilancia o auxilio material.

***Base 26.***– La organización de las pruebas será responsabilidad de la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud. La elaboración y calificación de las pruebas será responsabilidad del Servicio de Euskera de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, que será dotado de los recursos materiales y humanos necesarios para el desempeño de esta función.

***Base 27.***– El nivel de conocimiento de euskera exigido en cada perfil lingüístico se evaluará teniendo en cuenta la competencia lingüística definida para cada perfil en el artículo 13 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el anexo del Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

***Base 28.***– Al objeto de gestionar la realización de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos, resulta imprescindible recoger, procesar, reunir en un fichero y poner a disposición de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y de aquellas administraciones competentes datos personales de los solicitantes. El tratamiento de los datos personales recogidos como consecuencia de esta resolución se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, que regula la Protección de Datos de Carácter Personal, así como en la normativa sobre medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contienen datos personales, aprobada mediante RD 994/1999, de 11 de junio.

Los empleados que participen en estas convocatorias aceptan el procesamiento de datos personales llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo de esta resolución.

De igual manera, aceptan el registro, tratamiento y cesión de las calificaciones, al objeto de llevar a cabo el informe de evaluación sobre el cumplimiento de los objetivos y prioridades de uso, los procesos

aldetik gaitzeko prozesuak, eta hizkuntza-eskakizunen egiaztatze gradua ere (67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzekoa, 1.3 artikulua). Orobat, datu horiek Osakidetzako Euskera Plana egokiro kudeatzeko ere erakunde eskudunei lagatzea onartzen dute.

Eskatzaileei buruzko informazioa Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erregistratutako fitxategi batean egongo da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren «Registro del personal de Osakidetza» deritzan erregistroan hain zuzen. Eskatzaileek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea, 45; 01006, Vitoria-Gasteiz.

***29. oinarria.***– Deialdi honetako lehenengo egiaztatze-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

***30. oinarria.***– Izangaiek eskabide elektronikoa bete beharko dute, horretarako ondorengo helbide elektronikoetara joz:

– http://www.osakidetza.net (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: Giza Baliabideak > Euskara > Ikastaroak, Hizkuntza-eskakizunen deialdiak > egiaztapenak > 2010eko deialdia > eskabideak).

– http://www.osakidetza.euskadi.net (honen barruan bide honi jarraitu behar zaio: Osakidetza > Giza Baliabideak > Euskara > egiaztapenak > 2010eko deialdia > eskabideak).

de capacitación lingüística del personal y el grado de consecución de perfiles lingüísticos (artículo 1.3 del Decreto 67/2003, de 18 de marzo, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio Vasco de Salud), así como para gestionar convenientemente el Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

La información sobre los solicitantes estará incluida en el fichero denominado «Registro del personal de Osakidetza», registrado en la Agencia Española de Protección de Datos. Los solicitantes podrán ejercer su derecho al acceso a los datos del fichero, a la modificación de dichos datos o a su anulación, para lo cual deberán dirigirse a la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, calle Álava 45; 01006 Vitoria-Gasteiz.

***Base 29.***– El plazo de presentación de solicitudes para la participación en el primer proceso de acreditación de esta convocatoria será de 10 días naturales, iniciándose el cómputo de dicho plazo el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la presente Resolución.

***Base 30.***– Los/las aspirantes deberán cumplimentar la solicitud por vía electrónica. Para ello, deberán acceder a las siguientes direcciones electrónicas:

– http://www.osakidetza.net (La ruta a seguir es la siguiente: Recursos Humanos > Euskera > Cursos, Convocatorias Perfiles Lingüísticos > acreditaciones > convocatoria 2010 > solicitudes).

– http://www.osakidetza.euskadi.net (La ruta a seguir es la siguiente: Osakidetza > Recursos Humanos > Euskera> acreditaciones > convocatoria 2010 > solicitudes).